**Espedientea: 3HI-008/17-P05-A**
**AIA**
Aiako arau subsidiarioen berrikuspenaren 4. aldaketa: “ordenantzen 35. eta 37. artikuluak eta etxebizitza-kopuruaren izaera estrukturala”.

**Expediente: 3HI-008/17-P05-A**
**AIA**
4ª Modificación de la Revisión de las NNSS de Aia: "Art. 35 y 37 de las Ordenanzas y Carácter estructural del nº de viviendas".

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN GIPUZKOAKO HIRIGINTZA PLANGINTZA ATALEKO IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak ekainaren 9an izandako 3/2017 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituztela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

I. “Aiako arau subsidiarioen Berrikuspenaren 4. Aldaketa: ordenantzen 35. eta 37. artikuluak eta etxebizitza-kopuruaren izaera estrukturala” espedienteari aldeko irizpena ematea, ondoren aipatzen den araudiari jarraikiz lotesleak diren alderdien gainean: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako maiatzaren 31ko 4/1990 Legea eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legea.

II. Kontuan hartu beharko da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Bigarren Xedapen Iragankorrak ezarritakoari jarraikiz, hiri-antolamenduko plan orokor eta plangintzaren arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko direla aipatutako lege horren zehaztapenetara.

**II.- Uraren arloan:**

2017ko maiatzaren 24an, URA-Uraren Euskal Agentziak aldeko txostena eman zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1.- Egun dauden eraikuntzetan sortuko diren etxebizitza berriak uholde-arriskugunean kokatuz gero, aipatutako Plan Hidrologikoaren 40. eta 41. artikuluetan jasotzen diren erabilera-mugak bete beharko dituzte.

2.- Jabari Publiko Hidraulikoan edota horrekin lotutako babes-eremuetan egingo diren obrek administrazio-baimena lortu beharko dute aurretik. Baimen hori Agentzia honetan izapidetuko da.

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA SECCIÓN DE PLANEAMIENTO URBANÍSTICO DE GIPUZKOA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

CERTIFICO que en la Sesión 3/2017, de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa celebrada el día 9 de junio, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguientes acuerdos:

**“I. En materia de Ordenación Territorial:**

I. Informar favorablemente el expediente de “4ª Modificación de la Revisión de las NNSS de Aia: “Art.35 y 37 de las Ordenanzas y Carácter estructural del número de viviendas”, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

II. Se deberá tener en cuenta que, en cumplimiento de lo establecido en la Disposición Transitoria Segunda de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, todos los Planes Generales de Ordenación Urbana y Normas Subsidiarias del Planeamiento deberán ser adaptados a las determinaciones de la Ley mencionada.

**II- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 24 de mayo de 2017, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1.- Si las nuevas viviendas que se generen en los edificios preexistentes se sitúan en Zona Inundable, deberán cumplir las limitaciones a los usos regulados en los artículos 40 y 41.

2.- Cualquier obra que se realice tanto en el Dominio Público Hidráulico como en sus zonas de protección asociadas deberá obtener la previa autorización administrativa que se tramitará en esta Agencia.

**II- Kultura Ondarearen arloan:**

Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2017ko maiatzaren 15ean emandako txostenean, honako zehaztapen lotesle hauek ezarri zituen:

Donejakue Bidea Euskal Autonomia Erkidegotik igarotzean kultura-ondasun gisa (monumentu-multzoaren kategorian) dago kalifikatuta, urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuak ezarritakoarekin bat (EHAA 19. zk., urtarrilaren 19a, ostirala). Dekretuaren eranskinetan, modu xehatuan jasotzen dira bidearen trazadura eta bideko elementuek behar duten babesa, hala nola Aiako udalmugartean kokatuta dauden elementu batzuk.

Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 28.1 artikuluak ezartzen du kalifikatutako ondasun higiezinak babes-araubidearekin eta hirigintza-plangintzako tresnekin bat kontserbatu behar direla. Beraz, Donejakue Bidearekin lotutako elementu horietarako, balizko eraikuntza-inbertsioek adierazpenean ezarritako babes-araubidean zehaztutakoa bete beharko dute beti.

Gipuzkoako Plangintza Sekzioak txostenaren 1.2 paragrafoa gomendio-atalaren baitan jasotzea.

**III.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari honako hauek egindako txostenak bidaltzea: Etxebizitza Sailburuordetza (I. eranskina); URA-Uraren Euskal Agentzia (II. eranskina); eta, Kultura Ondarearen Zuzendaritza (II. eranskina). Ziurtagiri horiek erantsita doaz."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 9an.

**II- En materia de Patrimonio Cultural:**

La Dirección de Patrimonio Cultural, en su informe emitido el 15 de mayo de 2017, formula las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

El Camino de Santiago a su paso por la Comunidad Autónoma del País Vasco está calificado como Bien Cultural con la categoría de Conjunto Monumental en base al Decreto 2/2012, de 10 de enero (BOPV nº 19 de viernes 27 de enero). En los Anexos al Decreto se contempla pormenorizadamente el trazado y la protección necesaria de los elementos afectos al Camino, encontrándose entre ellos varios elementos ubicados en el término municipal de Aia.

El art. 28.1 de la Ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco establece que los bienes inmuebles calificados deben ser conservados con sujeción al régimen de protección y a los instrumentos de planeamiento urbanístico, que deberán ajustarse a aquél. Por tanto, para dichos elementos afectos al camino de Santiago, las inversiones constructivas posibles deberán remitirse en todo caso a la definidas en el Régimen de Protección establecido en la declaración.

La Sección de Planeamiento de Gipuzkoa acordó considerar el párrafo 1.2. del informe dentro del apartado de recomendaciones.

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente el informe emitido la Viceconsejería de Vivienda (Anexo I); por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo II) y por la Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo III), que se acompañan a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 9 de junio de 2017.

IDAZKARIA/EL SECRETARIO

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga